

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Portugaletoko Udala****Portugaletoko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak 2020ko ekitaldirako eman behar dituen dirulaguntzen deialdia.**

Portugaletoko alkate-udalburuak 2020ko otsailaren 3an honako dekretu hau eman du. Ikusita, Portugaletoko Udalbatzak, 2019ko martxoaren 28an eginiko ohiko bilkuran, besteak beste, onetsi zituela Portugaletoko Udalaren Ongizate Sailak eman behar dituen dirulaguntzen oinarri-arauak.

Eta arestian aipaturiko oinarri-arauak hauexek direlarik:

1. Baliabide ekonomiko gutxiko Portugaletetarrentzako dirulaguntzak.
2. Dirulaguntzak Portugaletoko familia ugarietara.
3. Gizarte zerbitzuekin lankidetzan diharduten entitateetarako dirulaguntzak.
4. Udalak urgentziazko dirulaguntzak Portugaletoko herritarrei ematea helburu dutelarik arrisku edo gizarte-bazterketa egoerak aurrezaindu, saihestu edo arintzea.

Toki-Jaurpideei buruzko Oinarri-Arauen 7/1985 Legearen 21. artikulua Alkatetzari ematen dizkion ahalmenez baliaturik eta gainontzeko lege aplikagarriak ere kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren proposamenari jarraikiz,

HAUXE XEDATU DUT:

Lehenik: Alkatetzak eskumenak hartzea erabaki hau agintzeko xedez.

Bigarrenik: Portugaletoko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak 2020ko ekitaldirako emango dituen dirulaguntza hauen deialdia egitea.

**1. BALIABIDE EKONOMIKO GUTXIKO
PORTUGALETETARRENTZAKO DIRULAGUNTZAK****1. artikulua. — Dirulaguntzen xedea**

Deialdi honen xedea da baliabide ekonomiko gutxiko portugaletetarrei dirulaguntzak ematea, erreferentzia zarama eta estoldaren udal tasak eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko kopuruak direlarik.

2. artikulua. — Oinarri-arauak

Portugaletoko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eman behar dituen dirulaguntzen oinarri-arauak Portugaletoko Udalbatzak onetsi zituen 2019ko martxoaren 28an eginiko ohiko bilkuran.

3. artikulua. — Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

1. Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Eskaerak Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailera bidaliko dira, eskabide-orria behar bezala beteta. Horrekin batera, arau hauen 7. artikulua zehazten dituen agiriak ere aurkeztu beharko dira.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Aurrekontuko kreditua ehun mila eurokoa (100.000,00) izango da, indarrean dagoen aurrekontuko 06 2316 48001 diru-sailaren kargura.

**2. DIRULAGUNTZAK PORTUGALETEKO FAMILIA UGARIEI****1. artikulua. — Dirulaguntzen xedea**

Deialdi honen xedea da Portugaleteko familia ugarietako dirulaguntza ematea, horren erreferentzia Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zenbatekoa izanik.

2. artikulua. — Oinarri-arauak

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eman behar dituen dirulaguntzen oinarri-arauak Portugaleteko Udaltzaren onetsi zituen 2019ko martxoaren 28an eginiko ohiko bilkuran.

3. artikulua. — Eskerak aurkezteko epea eta tokia

1. Eskerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Eskerak Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailera bidaliko dira, eskabide-orria behar bezala beteta. Horrekin batera, arau hauen 7. artikulua zehazten dituen agiriak ere aurkeztu beharko dira.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Aurrekontuko kreditua hamabost mila eurokoa (15.000,00) izango da, indarrean dagoen aurrekontuko 06 2316 48007 diru-sailaren kargura.

3. GIZARTE ZERBITZUEKIN LANKIDETZAN DIHARDUTEN ENTITATEETARAKO DIRULAGUNTZAK**1. artikulua. — Dirulaguntzen xedea**

Deialdi honen xedea da Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan diharduten irabazi-asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak ematea. Entitateek Portugaleten izan behar dute egoitza edo diruz lagundu beharreko jarduerak Portugaleten garatu behar dituzte.

2. artikulua. — Oinarri-arauak

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eman behar dituen dirulaguntzen oinarri-arauak Portugaleteko Udaltzaren onetsi zituen 2019ko martxoaren 28an eginiko ohiko bilkuran.

3. artikulua. — Eskerak aurkezteko epea eta tokia

1. Eskerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Eskerak Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailera bidaliko dira, eskabide-orria behar bezala beteta. Horrekin batera, arau hauen 7. artikulua zehazten dituen agiriak ere aurkeztu beharko dira.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Aurrekontuko kreditua hogeita hamabost mila eurokoa (35.000,00) izango da, indarrean dagoen aurrekontuko 06 2316 48101 diru-sailaren kargura.

4. UDALAK URGENTZIAZKO DIRULAGUNTZA ZUZENAK PORTUGALETEKO HERRITARREI EMATEA HELBURU DUTELARIK ARRISKU EDO GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAK AURREZAINDU, SAIHESTU EDO ARINTZEA**1. artikulua. — Xedea**

Deialdi honen xedea da, batetik, urgentziazko dirulaguntza zuzenak ematea 2020. urtean gertatzen diren bazterketa-egoerak aurrezaintzeko eta artatzeko, eta bestetik, herritarrek eta familiak gizarteratzea, azaroaren 17ko Dirulaguntza Orokorren 38/2003 Legearen 22.2.c) eta 28.3 atalek dakartenarekin bat etorritik.

**2. artikulua. — Oinarri-arauak**

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eman behar dituen dirulaguntzen oinarri-arauak Portugaleteko Udaltzatza onetsi zituen 2019ko martxoaren 28an eginiko ohiko bilkuran.

3. artikulua. — Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

1. Eskaerak aurkezteko epea 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Eskaerak Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailera bidaliko dira, eskabide-orria behar bezala beteta. Horrekin batera, arau hauen 7.1 artikulua zehazten dituen agiriak ere aurkeztu beharko dira.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Aurrekontuko kreditua laurogeita sei mila eurokoa (86.000,00) izango da, indarrean dagoen aurrekontuko 06 2316 48004 diru-sailaren kargura.

Hirugarrenik: Deialdi honi buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrenik: 2020. urteko ekitaldiari dagokion gastu aurreikusia onestea, A aldian (Gastuaren Baimena), xehetasun hauekin bat etorrira:

Aurrekontuko aplikazioa	Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa (€)
06.2316.480.01	Udalerriko familiei zuzenduriko transferentziak	100.000,00
06.2316.480.07	Udalerriko familia ugarietarako zuzenduriko transferentziak	15.000,00
06.2310.48101	Udalerriko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzenduriko transferentziak	35.000,00
06.2310.48004	Gizarte-larrialdietarako transferentziak	86.000,00

Bosgarrenik: Honen berri ematea Gizarte Zerbitzuen eta Kontu-hartzaitza Sailei. Portugaleten, 2020ko otsailaren 3an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo